



Guuk webguneko erabiltzaileen datuak eta pribatutasuna babesteko politika

GUUK TELECOM, S.A.-k (aurrerantzean, Guuk) Espainian eta Europar Batasunean indarrean dauden legeak betetzen ditu, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez. Horretarako, behar diren neurri tekniko eta antolaketa neurriak hartu ditu, emandako datu pertsonalak galtzea, gaizki erabiltzea, aldatzea, bamenik gabe eskuratzea eta lapurtzea ekiditeko, kontuan harturik teknologiaren egoera, datuen izaera eta datuok dauzkaten arriskuak.

Ondoren, datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa betez, Guuk-ek egiten duen datu tratamenduaren zehaztapenak eta baldintzak jakinarazten zaizkizu.

1. NOR DA ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

GUUK TELECOM, SA –A-75238972 IFZ zenbakia eta helbide soziala ZUATZU PARKEA-2, Donostia 20018 (Gipuzkoa)– Guuk-ek emandako telekomunikazio zerbitzuak merkaturatzeko enpresa den heinean.

Datuak babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke dpo@guuk.eus helbide elektronikora idatzita.

2. ZER HELBURUREKIN TRATATZEN DITUGU ZURE DATUAK ETA ZER LEGITIMAZIOREKIN?

Bezeroa ez bazara, helburu hauekin erabili ahal izango ditugu zure datuak:

1. helburua. Gure zerbitzuei buruzko informazioa emateko

Hala eskatzen badiguzu, zurekin harremanetan jar gaitzke, telefonoz adibidez, zuk emandako baimenean oinarrituta merkaturatzen ditugun produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

2. helburua. Zure estalduraren araberako informazioa emateko

Zure datuak tratatuko ditugu, adierazten diguzun helbidean gure zerbitzuen estaldurarik ba ote duzun egiaztatzeko; eta, ondoren, helbide horretatik bertatik zurekin harremanetan jarriko gara, merkaturatzen ditugun zerbitzuen berri emateko, betiere, zure baimenean oinarrituta.

3. helburua. Merkataritza Kontratua

Gurekin harremanetan jartzen bazara Guuk-ek zure eskura jartzen dituen kanaletako edozein erabiliz, hala nola posta elektronikoa, telefonoa, profilak eta sare sozialetako kontuak, edo etorkizunean ezar daitekeen beste edozein bide, jakinarazten dizugu zeuk emandako baimenaren arabera tratatuko dugula gure esku utzitako informazio guztia, kanala edozein dela ere.

2.2. Banatzailea izanez gero:

Zurekin harremanetan jartzeko eta, zure baimenean oinarrituta, banatzaile nola eta zer baldintzatan egin zaitezkeen jakinarazteko erabiliko ditugu zure datuak; interesa izanez gero, zure datuak aztertuko ditugu, banatzaile izateko egokitasuna egiaztatzeko, eta, hain zuzen, Kontratu aurreko neurriak izango dira legitimazio oinarria.



3. ZER ERATAKO DATUAK TRATATZEN DITUGU?

Aurreko atalean azaldutako helburuetarako, interesdunaren datu guztiak erabiliko dira. Datuok, zehazki, honako iturri eta kategoria hauetan bana ditzakegu:

Interesdunak zuzenean emandako datuak:

Interesdunak zuzenean emandako datuak, hots, horretarako prestatutako inprimakiak betez informazioa eskatzeko unean emandakoak, hala nola bezeroarekin harremanetan jar gaitzean eskatzeko emandakoak, zerbitzuen berri emateko edo estaldura egiaztatzeko.

Harremanaren garapenaren ondoriozko datuak:

Erabiltzaileak zeharka emandako datuak, gerta daitezkeen informazio harremanen esparruan edo webgunea erabiltzearen ondorioz. Kategoria honen barruan sartzen dira webgune publikoaren bidezko nabigazio datuak, zerbitzuaren behar espezifikoetarako buruzko datuak edo antzeko beste batzuk.

Guuk-ek inferitutako datuak:

Guuk-ek bezeroaren datuak aztertuz inferitutako datuak, dela algoritmo matematikoak aplikatuz, dela bere know-howa aplikatuz. Kategoria horren barruan sartzen dira interesdunaren profilatze jardueren emaitzak, erakundeak erabil ditzakeen irizpideen arabera, hala nola harremanetarako bidea, eskatutako informazioa, bihurketa tasa...

Hirugarrenengandik lortutako datuak:

Baimena emanez gero, hirugarrenek emandako datuak, hala nola, geomarketin enpresak, sare sozialak, CNMC edo erakunde horrekin telekomunikazioen araudia betetzeko lankidetzan aritu daitezkeen beste enpresa batzuk, autonomo edo profesionalen jarduera ekonomikoetarako buruzko informazioa ematen duten enpresak...

4. NORI JAKINARAZTEN DIZKIOGU ZURE DATUAK?

Zure datuak ez zaizkie jakinarazten hirugarren enpresei, Talde bereko beste sozietate batzuei izan ezik (horiek ikusgai daude www.grupomasmovil.com web helbidean), betiere, baldin eta horretarako baimena ematen baduzu. Era berean, ez dago aurreikusita datuen nazioarteko transferentziarik egitea.

5. ZENBAT DENBORAN GORDEKO DITUGU ZURE DATUAK?

Oro har, informazio eskaerak epe laburrean izapidetzen dira, baina baliteke epe hori luzatzea, adibidez, beste eskaintza batzuk aztertu ahal izateko astebeteko epea eskatzen badiguzu. Klik to Call zerbitzua amaitzean:

- Gure zerbitzuetako bakar bat ere kontratatu ez baduzu: zure datuak ezabatu egingo dira zuk eskatzen diguzun unean, zure baimena baitugu.
- Gure zerbitzuetakoren bat kontratatu baduzu: zure datuak bezero gisa alta emanda zaudela adierazten duen informazio guztiarekin batera gordeko dira, kasu zehatz bakoitzean aplikatu beharreko legezko epeak kontuan hartuta, bai eta datuen tipologia eta tratamenduaren helburua kontuan hartuta ere.

Bestalde, publizitate informazioa bidaltzeko eskatu baduzu, zeuk baimenari uko egin arte jarraituko dugu bidaltzen.

Banatzaileren datuen kasuan, emandako datuak gordeko ditugu zure eskaerari erantzuteko behar den epean.



6. ZEIN DIRA ZURE ESKUBIDEAK?

Datuak babesteko dugun araudiak zenbait eskubide ematen dizkizu gure zerbitzuek eskatzen duten datu tratamenduari dagokionez. Labur esanda, hauek dira eskubide horiek:

- Sartzeko eskubidea: zer datu mota tratatzen ari garen eta egiten ari garen tratamenduaren ezaugarriak ezagutzea.
- Zuzentzeko eskubidea: zure datuak aldatzeko eskatu ahal izatea, okerrak edo egiazkoak ez direlako.
- Eramateko eskubidea: tratatzen ari diren datuen kopia bat formatu elkarreragilean lortu ahal izatea.
- Legean jasotako kasuetan, tratamendua mugatzeko eskubidea.
- Datuak ezabatzeko eskubidea: datuak ezabatzeko eskatzea, tratamendua jada beharrezkoa ez denean.
- Aurka egiteko eskubidea: jakinarazpen komertzialak bidaltzeari uzteko eskatzea, arestian aipatutako moduan.
- Emandako baimena ezeztatzeko eskubidea, eskaera 10 eguneko epean prozesatuta.
- Kontrol agintaritzaren aurka erreklamazioa jartzeko eskubidea (Espainian, AEPD).

Zure eskubideak erabil ditzakezu posta arruntez helbide honetara idatziz: Avda de Bruselas 38, 28108 Alcobendas (Madrid); edo posta elektronikoz helbide honetara: dpo@guuk.eus. Kasu guztietan, erabiliko duzun eskubidea adierazi beharko duzu eta eskariarekin batera eskatzen den dokumentazioa bidali.

AEPD-ren web orrian zure eskubideak erabiltzen lagunduko dizuten zenbait eredu aurki ditzakezu.